

BASAGAIN





BASAGAIN

Bi Aroren arteko herrixka
Un poblado en el límite entre dos Eras

BASAGAIN

Argitalpenaren Zuzendaria: Juanxo Agirre-Mauleon

Edukiaren koordinazioa: Eider Conde, Aranzadiko Komunikazio Saila

Testuak: Xabier Peñalver eta Eloisa Uriarri.

Azalaren argazkia: Gordailua/Giorgio Studer.

Azal-hegalezko argazkia: Xabi Otero.

Planoa: Euken Alonso.

Euskara itzulpena: Asier Olazabal.

Edukiaren Zuzentzailea: Karlos Almorza.

Maketazioak: Tamtam S.L.

Inprimategia: Leitzaran Grafikak S.L.

Aranzadi Bilduma 07

ISBN 978-84-17713-30-0

ISSN 2255-0437

L.G. / D.L. D 01208-2020

Eskerrak

Urteetako indusketa arkeologikoetan borondatez lan egin duten guztiei. Giorgio Studer, Xabi Otero, Kontxi Luluaga, Nekane Peñagarikano, Angel Mari Peñagarikano, Loli Mujika, Glaukoma, Carlos Olaetxea eta Sonia San José.



Zorroagagaina 11
20014 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 466142
e-mail: idazkaritza@aranzadi.eus
www.aranzadi.eus

Anoeta
2020



|G|O|R|D|A|I|L|U|A|

Gipuzkoako Ondare Bildumea Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa



AURKIBIDEA

00 Aurkezpena	08
01 Sarrera	12
02 Anoeta eta Oria bailara.....	16
03 Basagain herrixka eta haren testuingurua.....	24
04 Bertako herrixka baten bizimodua eta berrikuntzen iritsiera.....	44
05 Bi mila urte lurpean egon ondoren, herrixka argitara atera da.....	86
06 Oinarrizko bibliografia	136

Nota: El índice en castellano está en la página 103.

00

Aurkezpena

*"Asaba zaharren baratza
huntzadun hormek hesia
eguzkiak lehen maitea...
Hotzaldi zoro baten itzuli
joka nagokik atea. (...)"*

*Ta lehen ikusi gabeko
zuhaitz berri bat zegoan
erdian, guzien buru...
haren gerizak herri-baratzak
ezinilkor egin ditu."*

Xabier Lizardi

"Asaba zaharren baratza", Bihotz-begietan, 1932



Mikel Errazkin

Gizarte antropologoa, Anoetarra

KUKUEN MEMORIA-LEKUA

Belaunaldiz belaunaldi, ahoz ahoz transmititu den tradizioaren arabera, inguruko lehen kuku-hotsak Goibailaran entzuten dira: Basagainen. Hala dio esaerak ere: "Andre Mari Martxozkotan kuku, eta San Pedrotan, mutu". Horregatik omen gara anoetarrak kukuak. Basagaineko muino berean, hain zuzen ere, kokatzen da herrian oraingoz ezagutzen den jendarte antolaketarik zaharrena. Duela 2000-2500 urte, anoetarron *asaba zaharren baratzan* elkartu eta bizi izan ziren, garaiko beharrizanei erantzuteko: landareak eta animaliak etxekotuz, mehatxuetatik babestuz, gizartea antolatzu eta lurraldea hustiatuz.

Bi mila urtetako *hotzaldiaren* osteko Basagain pinuz eta sasiz inguraturiko *hormek hesia* zegoen 1995ean, harik eta Xabier Peñalverrek zuzendutako Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoak herrixka harresituaren *atea joka* hasi ziren arte. Hogeita bost urte hauetan, lehen *ikusi gabeko* lurrik estalitako harriak eta bizidunen zantzuak bistaratu, dokumentatu eta zientziaren eta herritarren eskura jarri dituzte, eta, gaur egun, aztarnalekua Anoetako memoria-leku garrantzitsu bilakatu da.

Memoria historikoa jendarte batek bere iraganaren arrastoa ez galtzeko egiten duen ahalegina da, talde horrek eraiki duen iragan horren irudikapena ondorengo belaunaldieie helarazteko. Anoetan prozesu hori indartzeko bi arrazoi nabarmendu daitezke: alde batetik, XX. mende-erdialdeko industrializazioak eragindako biztanleriaren hazkunde handia (20 urtetan biztanleria laukoiztu egin zen), eta, bestetik, mundu-mailako globalizazioak eragindako kultura-uniformizazioa. Testuinguru horretan gizabanakook erreferentzia-puntuak galtzeko joera dugunez, iraganeko heldulekuak bilatzeko saiakera egin ohi dugu, gure identitatearen baieztapen gisa.

Basagaineek memoria-leku gisa duen garrantziaz ohartuta, udalak sei legegintzalditan hainbat ekinbide burutu ditu, esate baterako, indusketa arkeologikoak diruz laguntzea, aztarnalekua erosia eta bertako pinuak kontu handiz moztea, bisita gidatuak antolatzea, bertatik igarotzen diren mendi-ibilbideak seinalizatzea, informazio-panelak jartzea... Ildo horretatik, 2003an Anoetako Udalak herriko memoria-lekuak sustatzeko ekimen nagusietako bat gauzatu zuen: herriaren ikurra den armaria eguneratzea. XIX. mendeerdialdetik Anoetako armaria San Joan Batailatzailearen ikonografia irudikatzen zen. Erdi Aro Berantiarrean Anoetako Iur-eremuan kokatzen zen komunitateak San Joan Bataiatzailearen omenezko eliza eraiki zuen. Denborak aurrera egin ahala, tenpluak eskaintzen zuen babespean, herri bat sortzen hasi zen, non behar espiritualei erantzuteko biltzen ziren herritarrek beren bizimodua antolatzeko eremua ezarri zuten. Herritarren sinbolo nagusiena herriko zaindariak errepresentatzen zuen.

Milurte aldaketan, herritar gehienak ez zituen islatzen aurreko aroan osatutako armariak, eta, prozesu parte hartzaile bat tarteko, armaria eguneratzea erabaki zuen udalak; hain zuzen ere, zera sinbolizatzen duen: lurraldetasuna, historia eta herritarra.

Gizartea etengabe aldatzen denez, memoria historikoa ere berregokitu behar dela iritzita, armari berriak hiru osagai ditu: azpialdean, lurraldetasunaren eta naturaren adierazle den Oria ibaia; erdian, Basagaingo herrixka, lurraldean osatutako komunitate antolaturik zaharrena (harrizko eta egurrezko harresi batez inguratutako egurrezko txabolak); eta horren guztia gainean, kukua hegan (ahozko tradizioren arabera, herritarrei izena ematen diena).

Laburbilduz, Basagaingo herrixka herriko memoria historikoan kokatzean, egungo anoetarrak iraganekoekin lotzeko saiakera bat egiten ari gara, komunitate edo *herri-baratza ezinilkor*, iraunkor, eginez. Herriko memoria-lekuaren *lehen ikusi gabeko zuhaitz berri bat* den Basagaingo aztarnalekua ezagutzeko eta ezagutarazteko, funtsezkoa da eskuartean dugun liburu hau; *haren gerizan*, kukuak kukuka jarrai dezan.

01 Sarrera

*"Jakintza, beste hitz batez esan
zientzia, gizonak haragia z eta
odolaz bere aurrean sortu eta piztu
duen Eguzkia da, hots gizadiaren
azken helburua eta jo-muga"*

Maximo Gorki
Xalbador Garmendiaren itzulpena.
Herri-Gogoa Donostia 1970



Ibilaldi labur bat eginez Anoetatik Basagain mendiaren gailurrera igotzen bagara, hamaitakoa egitera eser gaitezke, belardi baten erdian bakar-bakarrik dagoen pago handiaren gerizpean. Toki horretatik bertatik gure begirada lau puntu kardinaletara zuzentzen badugu, ohartuko gara, inguruko lursailetatik metro gutxi batzuk gorago egon arren, ikuspena izugarria dela norabide guzietan.

Hurbileko espazioari begiratzen badiogu, gaur egun inguratzen gaituen zuhaiztiak mugatzen duenari, segituan sumatuko dugu tokiak ezaugarri oso egokiak dituela bertan gizatalde txiki bat ezarri ahal izateko: toki nahiko lauak gailur aldean, eta terraza zabal bat, gaur egun belardiz estalita dagoen azaleraren zati handi bat inguratzen duena.

Hala ere, begiak asko zorrotzu arren, ezingo dugu antzeman metro gutxira burdin mea asko dagoela, edo mea hori ateratzeko galeriak daudela, duela gutxi arte erabili izan direnak.

Bada, duela 2000 urte baino gehixeago toki horretara igo zirenek jakin zuten ikusten, ziur asko baso trinko samar batek kamuflatua egon arren, gaur egun pago erraldoiaren gerizpetik mugitu gabe antzematen duguna: ikusmen-kontrol handia duen eta defenditzeko erraza den kokaleku bat. Hau da, puntu estrategiko bat. Burdina bazela ere antzeman zuten; baita aldapa handirik gabeko gertuko tokiak ere. Ziur asko basoz soildutako eta belardiz estalitako tokiak imajinatu zituzten. Artaldeetan, behi-, ahuntz- eta txerri-taldeetan pentsatu zuten. Artatxikia, garia, garagarra eta oloa ereiteko etorkizuneko lursailak ere ikusi zituzten. Eta geratzea erabaki zuten. Harrisi handi bat eraiki zuten gailurra inguratuz; baita etxebizitzak eta bizirauteko, eta are aurrera egiteko, beharrezko guztia ere.

Beherago egongo zen, Oria ibaiaren alboan, gaur egun Anoeta herria dagoen lekuan, urte-sasoika ur geldiek hartzen zuten toki bat, defendatzeko ezinezkoa, eta garai harten populazio bat modu egonkorrean ezartzeko egokia ez zena.

Eta horrela, ondorengo belaunaldiek bizia eman zioten mendi horri, une batean, gure Aroaren hasieran, tokia behin betiko utzi zuten arte, bailara barruko beste puntu baxuago batzuetan ezartzeko. Gutxi dakigu, edo ezer ez, garai horiei buruz, XIV. eta XV. mendeetako lehenengo agiriek ibaitik gertuko tokietan dagoeneko ezarrita zeuden jendeen berri ematen diguten arte.

Baina Basagaingo kokaleku gotortuaren aurkikuntzari esker eta bertan ikerketa-lanak egiten hasi izanari esker, indusketa-ekinaldi jarraituak eginez eta lan-talde zabal batek eginiko azterketei esker, populazio horien bizimoduari eta ohiturei buruzko datu garrantzitsuak ezagutzen ari gara; ziur asko, ehunka urte batzuetan, bi Aroen arteko aldaketa-garaiaren inguruan, lur hauetako baliabideekin bizi izan ziren, haien ondorengoeik gaur egun egiten dutenaren antzera.



X. Peñalver.

02

Anoeta eta Oria bailara

*"Anoeta herria
Ederra bezain zoragarria
Kukuak kuku baso ertzetik
Erreka garden Ernio aldetik
Zeruko ihintzez buztia
Uzturre aldetik dator eguzkia
Baso, erreka, mendiz zoratzen nauzu egia
Zuke dezun edertasun haundiz"*

Anjel María Peñagarikano



Oria ibaiak, Aizkorri jiotzen dene-
tik, isurialde atlantikoaren eta mediterra-
neoaren banalerroan, Orioko herrigunearen
ondoan itsasoratzen den arte, 77 kilome-
troko ibilbidea egiten du eta gaur egungo
Gipuzkoako lurraldaren bizkarrezurreta
bat da; halaxe izan zen duela bi mila urtetik
gora barduliarrentzat ere, Basagaingo he-
rrixka gotortua garapen betean zegoenean.

Bere ibilbidean zehar populazioak
ezartzen joan dira milaka urtetan, baina
garai bakotzean ezaugarri desberdinak
kokaguneak aukeratuta. Horrela, Burdin
Aroan, bertako jendeak kota altu sama-
rrak aukeratzen zituen, haietatik inguruko
espazio zabalak kontrolatu ahal izateko;
ezaugarri horiekin gaur egun Oria baila-
raren barruan ezagutzen ditugun herrixka
gotortuak dira Murumendi, Intxur, Basagain
eta Buruntza. Leku hauek utzi ondoren, Aro
aldaketa eta laster, altueran jaitsi egin ziren
ibaiaren ibilgutik gertuago zeuden puntu-
tara, mende batzuk geroago, gaur egungo
herrien jatorri izango ziren herriguneak
sortzen joateko, bestek beste, Beasain,
Ordizia, Tolosa, Anoeta, Amasa-Villabona,
Andoain eta Orio.



Basagain herrixka, Anoeta
udalerriaren barruan. Aireko argazkia.
Aranzadi Zientzia Elkartea. 2019

Anoetari dagokionez, udalerri horretan baitago Basagaingo esparua, bere existentziari buruzko datu idatzi zaharrenak Erdi Arokoak dira, XIV. eta XV. mendekoak, hain zuzen ere. Dena den, gerora Anoetako udalerria izango zenaren lurrik okupatu zituzten biztanleei buruzko informaziorik gabeko, arkeologia nahiz agirien aldetik, mila urtetik gorako aldi bat daukagu.

Tolosako biztanleei buruzko 1349ko erroldan dagoeneko aipatzen ziren Anoetaren moduko landagune txikietan ezarritako nekazariak. Hala ere, 1450ean aipatzen dira lehen aldiz zuzenean herri honetako herri-tarrak, sozialki eta ekonomikoki baserrietan antolatuta, eta San Joan Elizaren inguruan.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiaketak, guztiz identifikatutako 26 baserri inguru, mendeetan zehar mantendu dira, nahiz eta XVII. eta XIX. mendeen artean berri batzuk eraiki ziren, oraindik erabilgarri zeuden eta bizirauteko moduko ia lur emankor guztiak okupatu arte.

Anoeta, nekazari eta abeltzainen herria duela hamarkada batzuk arte.
Anoetako baserriak 2005.



BASAGAIN

Anoeta eta Oria bailara

Gaur egun, udalerriak 4,12-km²-ko azalera dauka eta 2.000 pertsona bizi dira bertan, horietako %95-tik gora herrigunean.

Duela bi milurteko baino gehiago, Basagain mendiaren gailurrean batik bat nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi izan ziren haien ustezko ondorengo hauek jarduera industrialetik nahiz zerbitzuetatik bizi dira gaur egun; haietako askok inguruko herriean egiten dute lan, gehienek Oria bailaran bertan.



22

Hainbat milurtekotan zehar mantendutako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenak pixkanaka albo batera utzi eta beste jarduera batuetan hasteak aldatu egin ditu inguru hauetako paisaia eta bizimoduak.

Gaur egun, oso gutxirenak dira nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak. Nekazaritza-lanak Basagain herrixkatik gertu dagoen Amasa-Villabonako Andrestoki baserrian. X. Peñalver. 2013.



23

03

BASAGAIN herrixka eta haren testuingurua

*“Nire leihotik ikusten dut, behelainoa erantsita; arrats gorriz,
zeru urdinez edo pixkanaka itzaltzen dijoan ilunabarrez
apainduta; egunen joan-etorrian, urtez urte, milurteak, naturaren
misterioz jantzita; hantxe, basoaren goialdean, Basagain”*

Kontxi Luluaga



Herrixka gotortuak Basagain mendiaren goiko aldea hartzen du, itsas mailatik 295 m-ko altuerara eta Oria ibaiaren ibilgutik 227 m-ko altuerara. 2,81 hektareako azalera hartzen du, lurrik ez dira oso malkartsuak, leku batzuetan nahiko lauak, eta harresien barrualdeari itsatsita terraza handi bat dauka mendiaren ekialde, hegoalde eta hego-mendebaldean.



26

27



Hain zuzen ere, terraza horietan kokatu ziren etxebizitza-egitura gehienak nahiz artisauen jardueretara zuzendutako beste batzuk, kasu askotan, esparruaren babes handiekin kontaktuan.




28

Indusketa-eremuaren
airetiko ikuspegia eta
aurkitutako egituren eta
elementu adierazgarrien
berreraikuntza (harresia,
egituren euskarri-zutoinak
eta estelak). G. García.



29



29


Harresiak, herrixkaren babes bakarrak, gaur egun metro erdiko altuera baino ez dauka barrualdetik eta ia guztiz eraitsita dago kanpoaldeko zenbait unetan. Eraiki zutenean, gutxi gorabehera bi metroko altuera izan zezakeen, eta gainean, segur asko, egurrezko oholesi bat izango zuen. Lodiera, ederra, hiru metrokoa da. Kanpoaldetik begiratuta itxura handia izango zuen babes horrek oso-osorik inguratzen zuen herrixka; izan ere, hora gabe, bertaroko sarbide guztiak ez bailirateke gainditzeko oso zailak izango balizko etsaintzat.

BASAGAIN



30

Basagaingo harresia, zati
batean kontserbatua.
X. Peñalver.



Basagain herrixka eta haren testuingurua


31



Harresiaren eraikuntza-faseen
irudikapena. E. Escudero. 2019.

Kokagunearen ekialdean, duela bi hamarkada baino lehenagotik induskatzen ari diren lekuak, bi eraikuntza-fase ikusten dira harresian, baita ibilbidean egindako aldaketaren bat ere, baina oraindik zehaztu gabe dago noiz eta zergatik egin ziren aldaketa horiek.


BASAGAIN



Harresiaren luzeraren 15 metro induskatu dira dagoeneko eta bi hormaz, bat barrualdetik eta bestea kanpoaldetik, osatutako egitura duela ikusten da; horma horiek harrizko harlauz osaturik daude gehienbat, nahiz eta material bigunagoko blokeak ere erabili, eta egitura-ren pisuari eusten dion beheko ilaran harri handiagoak erabili zituzten. Bi hormen arteko tartea neurri ertaineko formarik gabeko harriz eta lurrez beteta dago.



Basagain herrixka eta haren testuingurua



34

Basagainen
herrixkako
bizimoduaren
une baten
berreraikuntza.
A. Benito
Gastañaga.

Basagainen bizi ziren etxebizitzak esparruko terrazadun guneetan eraiki zituzten, bai herrixkaren ekialdeko muturrean, arkeologikoki dokumentatu den moduan, bai, segur asko, hegoaldeko zatian. Toki egoki horietan, egurrezko zutabetan oinarritutako eraikinak egin zituzten harrizko zirien bidez lurrera finkatuta; pareta, gune batzuetan erreta kontserbatutako aztarnen bidez egiaztatu ahal izan denez, batez ere, lohiz estalitako eta ondoren leundutako gainazala duten adar-bilbadurez eginda

daude. Landarezko estalkiek ez dute inolako aztarnarik utzi. Barrualdean, espazioa hainbat gunetan antolatua egongo zen: sutonda, otorduetan esertzeko tokiak, atsedenerako tokia, eta janaria eta lanabesak gordetzeko toki bat. Indusketa arkeologikoetan ontzien eta biltegiratutako elikagaien (laboreak) aztarna asko berreskuratu dira. Aurkitutako etxebizitza-egitura harresiari atxikita zegoen, 72 m²-ko azalera izango zuen, eta hori guztiz lautua eta trinkotua zegoen, bizimodua errazteko.



35

Etxebizitzen estalkiak
landare-elementuekin
egingo zituzten.
Shutterstock.



36

Baina etxebizitzez gain, aurrez prestatutako gune batuetan **beste egitura batzuk** eraiki zituzten; horietan egongo ziren artisauen lan-tegiak, eta nekazari eta abeltzainen populazio haien egurrik, elikagaiak, lanabesak eta tresnak babesteko biltegiak eta estalpeak. Gainera, segur asko herrixka barruko leku batzuk abereak babesteko prestatuko zituzten, aldi baterako behintzat. Buztinezko milaka ontzi-zati, eskuz nahiz tornuz eginak, eta zepa asko (burdinaren eta brontzearen prozesu metallurgikoetako hondakinak), aurkitu dira esku-hartze arkeologikoak egin diren ia gune guztietaan, eta horiek denak leku horretan bizi izandako gizataldeek gauzatutako jarduera anitzen testigantzak dira.




37

Komunitatearen bizitzarako funtsezkoak ziren lan horiek, eta beste batzuk, esparru harresituaren barrualdean egiten bazituzten ere, beste asko harresitik kanpo egingo zituzten. Horrela, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako lan gehienak herrixkatik hurbil samar zeuden lurretan egingo ziren; baita burdin mearen erauzketarekin lotura zutenak ere, urez eta egurrez hornitzeko ezinbesteko lanez gain. Leku horiek denak herrixkaren erdigunarekin lotuta egongo ziren bide eta bidezidorren bitartez, eta horietako batzuk Basagaingo harresitik bertatik abiatuko ziren. Gaur egun ez dira ezagutzen ibilbide horiek, eta horregatik, esparrura iristeko bideak eta barrura sartzeko babesean irekitako puntuak bilatzen ari dira. Komunikabideen sare horiek inguruko herrixkekin harremanak izateko eta produktuak, ezagutzak eta esperimentziak elkartrukatzeko erabiliko zituzten.

Esparrura sartzeko ateari edo ateei dagokionez, orain arteko datuen arabera, segur asko haietako bat behintzat harresiaren ekialdeko zatiaren erdialdean egongo zen, hau da, gaur egun bide nagusia sartzen den tokian. Toki horretan esku-hartze arkeologikorik egin ez bada ere, harresiaren ibilbidea puntu horretatik alde batera eta bestera zati batean induskatuta ikusi da, ez daudela lerrokatuta; segur asko, eten nabarmena izango zen, beharbada, oraindik definitu gabeko tipologia zuen sarrera baten ondorioz.

Baina, zenbat pertsona bizi izango ziren aldi berean leku honetan? Zaila izaten da beti galdera hori erantzutea. Herrixketan induskatzen diren guneak haren azaleraren zati txiki bat baino ez dira izaten, eta orokorrean etxebizitzen kopuru txiki bati baino ez diote eragiten. Arriskutsua da beraz ikertutako eremua esparru osora estrapolatea, kasu oso zehatzetan izan ezik; beraz, ez da posible toki bakoitzaren biztanle-dentsitatea kalkulatzea. Hala ere, Burdin Aroaren amaierari dagozkion esku hartutako kokagune askotan zenbaki hipotetiko batzuk eman dira. Basagainen kasan, berrehun edo hirurehun biztanleko populazioan pentsa genezake, aukera huts moduan.




Eta, zein ziren pertsona horiek? zer ezaugarri zituzten? Ez da giza aztarnarik aurkitu, haietatik datu antropologikoak edo DNA lortu ahal izateko. Kokagune honi dagokion nekropolia ere ez da aurkitu oraindik. Eta aurkituko balitz ere, hemen gorpuak errausteko ohitura orokortua zen mende haietan eta horrek eragotzi egingo liguke zentzu horretan aurrera egitea. Dena den, Basagainen eta haren inguruko herrixketan aurkitutako materialek diotenaren arabera, Bigarren Burdin Aroko bertako populazioen aurrean geundeke, kasu batzuetan zenbait material berantiar zehatzen ekarpenarekin, baina kanpoko kultura baten sartze argirik gabe.

Bertako biztanleak modu jarraituan bizi izan toki horretan, aurreko Aroaren azken mendeetan eta, beharbada, egungoaren lehenengo uneetan; orduan, jadanik erromatar munduaren presentziaren eraginpean izango ziren agian, hemendik oso urrun ez zeuden lekuetan argi eta garbi ezarrita baitzeuden.

Basagaingo kokalekua izan zen bitartean, Europako **testuinguru kulturala** oso dinamikoa izan zen. Gure Aroaren aurreko lehenengo milurtekoan zehar, kontinentean bizi ziren herriek jarduera handia zuten, eta haren erdigunea pixkanaka hegoaldetik iparrera mugitzen ziohan, Alpeetako mendikatearen bestaldera; denborarekin populazio-gune handiak sortu ziren, haietako batzuek ehunka hektarea hartzen zitzuztenak, gotorleku handiekin eta espazio zabalak eta garrantzi gutxiagoko kokalekuak kontrolatzen zitzuztenak: *oppida* deiturikoak dira.

Gure Aroaren aurreko azken bostehun urteetan zehar, Bigarren Burdin Aroa deritzon garaian, kontinentean aldaketa ugari izan ziren, eta gero eta harreman handiagoak izan zitzuzten Erromako boterearekin, azkenean honek herri horietako gehienak militarki kontrolatu zituen arte.

Gaur egungo Euskal Herria osatzen duten lurralteetan Burdin Aroko aldiei eta gure Aroaren lehenengo mendeei dagozkien ehunka kokagune ezagutzen dira; horrek erakusten digu Europako alde honetan ere jarduera oso kontuan hartzeko zela. Hala ere, gaur egun ezagutzen duguna kontuan izanik, herrialdearen isurialde mediterraneoan okupazio-dentsitatea askoz handiagoa dela ikusten da; izan ere, 400 aztarnategi inguru daude katalogatuta, komunikabide nagusietan nahiz bigarren mailako beste gune batzuetan ezarrita. Isurialde atlantikoan, nahiz eta Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoan 55 herrixka ezagutzen diren, Bizkaia eta Gipuzkoan 9 eta 10 aurkitu dira, hurrenez hurren. Nahiz eta gaur egun ez den ezagutzen zenbat bizigune izan ziren isurialde atlantiko eta mediterraneoan,




La Hoyako herrixka (Guardia), hiri-egituraren eredu nabarmena.
A. Llanos.

baiezta daiteke aztarna horiek aurkitzeko zaitasuna askoz handiagoa dela alderdi atlantikoan, batez ere, lurraltearen zati hori estaltzen duen landaretza trinkoak aztarnategiak ezkutatzen dituelako; beraz, beharbada, bi isurialdeen arteko biztanle-desoreka ez zen horrenbestekoa izango.

Basagaingo herrixkaren ingurune hurbilenera etorrita, Oria bailarara hain zuen ere, gaur egun, ibaiaren ibilguaren gainean estrategikoki kokatutako lau kokagune ezagutzen ditugu, haren ibilbidearen zati handi baten gaineko kontrol handia zutenak. Murumendi (Beasain), Intxur (Albiztur-Tolosa), Basagain (Anoeta) eta Buruntza (Andoain) esparruak dira. Horietako batzuk begi-bistaz elkar konektatzen dira, eta ezaugarri berdinak nahiz desberdinak dituzte. Horrela, neurriei dagokionez Intxurreko herrixka da guztieta handiena, 17 hektareako azalerarekin, eta gainerakoak askoz txikiagoak dira (0,7 eta 2,81 hektarea artean). Hala ere, guztiak Burdin Arokoak izan arren, ez dirudi erabat aldi berean existitu zirenik. Adibidez, Intxurrek eta Buruntzak Burdin Aroaren hasierako okupazioak dituzte, eta guztiekin iraun dute Bigarren Burdin Aroan. Baina gaur egun ditugun herrixka izan

datuen arabera, badirudi Basagaingo zela garai berantiarrenetara arte iraun zuena, eta segur asko, sorrera ere bailara honetan ezagutzen diren bestean baino beranduagokoa izango zuen.



Herrixka gotortuak Oria bailararen gainean eraiki zituzten, eta horrela, haren ibilbidearen zati handi bat kontrolatzenten zuten.
J.M. Edeso/A. Uriz. 2020.

Okupazio horien unerik berantiarrenei dagokionez kontuan izan behar da, M. Urteagak (2002) eta M. Urteaga eta J. Arcek (2011) azpimarratzen duten moduan, gure Aroaren aurreko azken mendean jadanik antzematen hasi zirela, gaur egungo Gipuzkoako lurraldoko alderdi zehatz batzuetan, erromatar munduaren hainbat eragin, hurrengo mendeetan Erromaren kontrolaren frogak ziurrak izango direnak. Aurreko Aroaren azken uneei dagozkion aurkikuntza isolatuak gero eta ugariagoak dira, eta gaur egungo Aroaren hasieran nabarmena da Pirinioen mendebaldeko ertzekeko alderdi batzuen gaineko eragina eta kontrola, batez ere Irun aldean, Oiasso civitasa zegoen lekuan; honek portua zeukan gure Aroko I. mende amaieran, eta gertu, Arditurriko meategian, galena (zilar asko zeukan berun-mea) eta kobrea ustiatzen zituzten.

42



Iruno Santiago kaleko erromatar portuaren kai-ontzitegia.
Arkeolan Fundazioa.



Arditurri 10
meategi erromatarreko
prospekzio-meazuloa.
Arkeolan Fundazioa.

Oiassoz gain, aipatutako egi-leek diotene moduan, kostaldean ere ohikoak dira erromatar garai-ko aurkikuntzak, Bizkaiko golkoa zeharkatzen zuen kabotajeko itsas bidearekin erlazionatuta. Mota horretako aurkikuntzak Gipuzkoa hegoaldean ere izaten dira, isu-rialdeen banalerroaren inguruan, Arabako lautadako eta Burundako komunikabide handien gertatsu-sunaren eraginez.

Mota honetako aztarnategie-tan, eta zehazki Basagaingoan, garapen kronologiko eta kultural hori egiaztatzen duten elementu materialekin batera, karbono 14 analisi batzuk ditugu, **kronologia** zehatzagoa ezartzeko asmoz; analisi horiek bertako induske-ta-lanetan aurkitutako egur-aztar-nekin egin dira eta 2360 ± 120 B.P. eta 1600 ± 80 B.P. urteen arteko datak eman dituzte, nahiz eta ge-hienak Aro aldaketaren aurreko IV. eta II. mendeen artekoak izan.

43

Bertako herrixka baten bizimodua eta berrikuntzen iritsiera

04

*"Hoy te roban la Historia
de ayer, para que mañana
no te acuerdes"*

Glaukoma
Herencia 2017



Basagaingo biztanleek aurreko Aroko azken mendeetan izandako bizimodua ezagutzeko modu bakarra, han bertan esku-hartze arkeologikoak eginez datuak lortzea da. Hala ere, baditugu zenbait **testu klasiko** (haietako batzuk herrixkan jendea bizi zen garaietatik hurbil idatziak), eta gutxi izan arren, eta kanpotarrak izanik neurri batean, segur asko, desitxuratuta egon arren garai horri buruzko gure ezagutzak osatzeko balio digute.

Gehien aipatzen den dokumentuetako bat Estrabonek idatzia da: *Geografia*. K.a. 29. eta 7. urtean artean idatzia, eta gerora, K.o. 18. urtean neurri batean moldatua, honakoa kontatzen digu penintsula iparraldeko “herri menditarren” inguruau: “*Mendiko biztanle horiek denak soilak dira: ura baino ez dute edaten, lurrean lo egiten dute eta, emakumeen modura, ile luzea daramate, nahiz eta borrokarako xingola bat jartzen duten kopetan. Batez ere aharikia jaten dute; Aresi sakrifikatzen dizkiote ahariak, baina baita gatibuak eta zaldiak ere; biktima-mota bakoitzaren hekatonbeak egiten dituzte, greziarren antzera, eta Pindaroren moduan esanda: ehuneko oso bat immolatzen dute. Lehia gimnastikoak, hoplitikoak eta zaldizkoak egiten dituzte, ukabilka borroketarako, lasterketarako, liskarretarako eta zelai beteko guduetarako trebatuz. Urtearen bi herenetan menditarrek ez dute ezkurra baino jaten; horiek, lehortuta eta xehatuta, ogia egiteko ehotzen dira, eta horrela denbora luzez irauten du. Garagardoa edaten dute, eta ardoa, urria, daukatenean berehala edaten dute familiarteko jai handietan. Olioaren ordez koipea erabiltzen dute. Hormen kontra egindako bankuetan eserita jaten dute, adinaren eta mailaren arabera jarrita; janaria eskuz esku pasatzen dute; edaten duten bitartean, gizonek txirula eta tronpeta doinuan dantzatzen dute, jauzi eginez eta erortzean belaunikatuz. Bastetanian emakumeek ere dantza egiten dute gizonekin batera, elkarri eskutik helduta. Gizonak beltzez janzen dira, eta gehienek lastozko ohean lo egiteko erabiltzen duten ságos-a daramate soinean. Zurezko edalontzi landuak erabiltzen dituzte, zelten antzera. Emakumeek lorezko apaingarridun*

jantziak daramatzate. Barnealdekoek, txanponaren ordez espezieen trukea erabiltzen dute edo zilarrezko xafla-zatiak ematen dituzte. Gaizkileak amildu egiten dituzte, eta parrizidak harrika hil, bere lurraldetik edo hiritik kanpora aterata. Greziarren antzera ezkontzen dira. Gaixoak, antzina egiptoarrek egiten zuten moduan, bideetan jartzen dira, gaitz berdina jasan dutenek senda ditzaten. Brutoren espedizioaren aurretik, ez zeukaten larruzko txalupak besterik itsasadar eta paduretan nabigatzeko; baina gaur egun jada erabiltzen dituzte zuhaitz-enbor batez egindako ontziak, nahiz eta haien erabilera arraroa izan oraindik... Horrela bizi dira menditar hauek, zeinak, lehen esan bezala, Iberiaren iparraldean bizi diren; hauek dira, galaikoak, astureak, kantauriarrok eta baskoiak, Pirineoetara iritsi arte, eta guztiek bizimodu berdina daukate” (III, 3, 7).



Eguneroako bizitzako eszena
baten berreraiketa Intxurreko
herrixkako etxebizitza batean.
J. I. Treku -Kaioa-



48


Beste testu-zati batean, egile berak beste ohar esanguratsu batzuk biltzen ditu: "Haien zakartasuna eta basakeria ez dira gerlari ohituren ondorio bakarrik, urruntasunak ere zerikusia du; izan ere, lurralte haue-tara heltzeko itsasoko eta lurreko bideak luzeak dira, eta komunikatzeko zailtasun horrek jendetasun eta gizatasun osoa galdarazi diete.



Dena den, gaur egun kaltea txikiagoa da bakeari eta erromatarren etorrerari esker. Bi abantaila horiek sartu ez diren tokietan, izaera anker eta basatiagoa mantentzen dute, kontuan izan gabe, haietako gehienek duten joera natural hori lurraltearen laztasunagatik eta klimaren gogortasunagatik gehitua izan daitekeela. Baino, berriro diot, gerra horiek guztiak amaituak daude gaur egun" (III, 3, 8).

Basagaineko biztanleak, biziraupena bermatuko zien bizitza garatzeko baldintzak sortzeko gai izan zirenak, bilakatuz joan ziren bertan bizi izandako mendeetan zehar. Esparru horretako indusketa-lanetan berreskuratutako materialek Burdin Aroaren une aurreratu batera garamatzate, izan ere, adibidez, tornuz egindako zeramika agertzen baita, Intxur (Tolosa-Albiztur) eta Buruntzako (Andoain) herrixketan ez bezala. Gainera, inguruan, eta zehazki, gaur egungo Gipuzkoako lurralteko leku estrategiko batuetan jada ezarritako erromatar munduarekin harremanetan jartzen gaituzte objektu batzuek; besteak beste, Iturissa motako fibulak eta sandalien tatxet batzuek (*clavus caligae*).

49



Pertsona horiek **gizarte-antolaketa** garatua izango zuten mendi honen gailurrean kokatu ziren lehen unetik bertatik.

Kokagunea aukeratzeak, eta babes-sistema eta eguneroko bizitza gauzatzeko beharrrezko egitura guztiak eraikitzeak, berariazko ezagutzak eta zeregin bakoitza egiteko plangintza eta antolaketa eskatzen bazituen, landa-bizitzarekin eta artisautza ekoizpenarekin lotutako ondorengo lanak ere, oinarrizkoak taldearen biziraupenerako, ezin izango ziren burutu ezagutza-maila handi baten jabe zen gizarte-egitura bat gabe.

Nekazaritzako ekoizpena
oinarrizkoa zen Burdin Aroko
herrixken biziraupenerako.
A. Benito Gastañaga.



Gertuko nahiz urrutiko herriekin harreman komertzialak, politikoak eta beste mota batzuetakoak ezartzeak hainbat balio, eta are esperientzia, izatea eskatuko zuen, egoki gauzatu ahal izateko.

Garai horietako gizarte-antolaketarekin erlazionatuta herrixken arteko ustezko hierarkizazioaren gaia dago, orokorrean ebazteko zaila izaten dena datu faltagatik. Beti ez da posible izaten kokaleku horien garaikidetasuna zehazten, batez ere haietan garrantzizko arkeologia-lanik egin ez bada. Basagaingo herrixkaren kasuan, ingurune hurbilarenarekin erlazionatzean, hau da, Intxur, Buruntza eta Murumendirekin, nahiz eta guztiak ikertuak izan diren edo izaten ari diren, ezin daiteke ondorio argirik ateragune nagusien eta bigarren mailakoen existentziari buruz, ezta ustezko dependentzia eta mendekotasunen inguruari ere.

Herrixken arteko harremanen arloan, haien arteko ustezko gatazka armatuen gaia ere badago. Iturri idatzi klasikoek, eta kontserbatutako aztarna arkeologiko batzuek, kasu askotan osagai militar sendoa duten gizarteak zirela adierazten digute. Gauza berbera berresten dute, neurri oso handiko babes-sistemen agerpen orokorrak, estela eta txanponetan gizabanako armatuekin egindako irudi ikonografikoek eta aztarnategi gehienetan askotariko gerra-materiala agertzeak. Hala ere, momentuz ez da suntsiketarik edo erasorik dokumentatu jorratzen ari garen esparru geografikoan; bai Euskal Herriko urrutagoko beste herrixka batzuetan, besteak beste, La Hoya herrixka arabarrean eta Nafarroako kokagune askotan.



Eszena militarrak hainbat euskarritan ageri dira. Irudian, gerlari zaldizko bat txanpon batean. Gordailua/G. Studer. 2020.



52

Basagaingo herrixkako
burdinazko armak.
Gordailua/G. Studer. 2020.

Basagainen, esparrua oso-osorik inguratzen duen harresi sendoa eta burdinez egindako armak izateak aditzera ematen dute, bazela kanpoko ustezko erasoen aurrean defendatzeko gai zen herri bat.

Herrixka honetako biztanleen **oinarri ekonomikoak**, aurreko Aroaren amaierako gainerako kokalekuak bezala, nekazaritza eta abeltzaintza ziren, azken urteetako ikerkuntzari esker egiaztatu den moduan. Herrixkan argi eta garbi dokumentatua dago laboreak ereiten zituztela lursail handi samarretan; A. Morenok bizilekuaren testuinguruaren jasotako hamarnaka laginaren egindako azterketa karpologikoetan ikusten da artatxikia (*Setaria italica*) dela espezierik ugariena; gutxiago landu zituzten gari jantzi bat (*Triticum dicoccum*) eta oloa (*Avena sp.*), eta are gutxiago beste gari mota bat (*Triticum monococcum*), espelta (*Triticum spelta*) eta gari arrunta (*Triticum aestiva*)."




53

Herrixkan gehien
kontsumitutako
landare-espeziea
artatxikia da.
Shutterstock.

BASAGAIN



Basagain - Aztarna karpologikoak (n=5.504)



Nekazaritza-jarduera horrek ezagutza asko eskatzen zituen: herrixkatik oso urrun ez zeuden lurak (orokorrean, bertako biztanleek egurra lortzeko basoz soildutako lekuetan), lurra baldintza ego-kietan mantentzea, haziak lortzea, ereite-faseak kontrolatzea, uzta, uzta ondorengo lanak, biltegiratzea eta lortutako produktuen banaketa.



Abeltzaintzak ere berariazko ezagutzak eskatzen ditu talde-mota bakoitzaren (behiak, ardi/ahuntzak eta txerriak) mantentze-lanei buruz, haien egunero elikatzea bermatu behar baita, kokagunetik gertu nahiz urrutti dauden bazkalekuetan, eta, aldi berean, belar-erreserbak izatea urritasun garaietarako.



Bertako herrixka baten bizimodua eta berrikuntzen iritsiera



Basagaingo herrixkari dagozkion aztarna karpologikoak. A. Moreno.

Lan horiek ondo gauzateak oinarrizko produktuak emango zizkien Basagaino biztanleei; besteak beste, haragia, esnea, eta zenbait produkto egiteko artilea eta larra; era berean, animalien indarra erabiliko zuten nekazaritzako nahiz beste mota batzuetako lanak egiteko (produktuak eta pertsonak garraiatzeko gurdiei tira egiteko eta abar).

Biziraupenerako ezinbesteko elikagai horien ekoizpenaz eta, beharbada, soberakina trukearen bidez merkaturatzeaz gain, pertsona horiek beste jarduera batzuk ere egin zituzten, haietako batzuk elikadurarekin lotuak, bes-

teak beste, zenbait produkturen bilketa (ezkurrak eta hurak) eta, noizean behin bazen ere, ehiza. Azken jarduera horren arrastorik ez bada ere oraingoz aurkitu Basagainen, ohikoa da bai kiskalitako ezkurrak agertzea herrixkako toki batzuetan.



Herrixka hauetako **merkataritza-jarduera**, gehienbat, hainbat lan-arlotan (batez ere, nekazaritza eta abeltzaintza izaerakoetan, baina burdinaren metallurgia eta zeramika-ekoizpenak ahaztu gabe) sortutako ekoizpen-soberakinen ondorio izango zen. Soberakin horiek beste produktu batzuengatik trukatuko zituzten, segur asko gertuko herrixkekin, nahiz eta batzuetan urrutagokoekin edo oso oso urrunekoekin ere egingo zituzten.

Distantzia labur, ertain eta luzera egindako eragiketa horiek hainbat motatako materialak jarriko zituzten zirkulazioan: batetik, bizirauteko beharrezko zirenak (elikagaiak); bestetik, oinarrizko jarduerak egiteko erabiltzen zirenak (lanabesak, erremintak, artilea, etab.) eta, azkenik, gutxiagotan erabiltzen zirenak, hau da, elementu bereziagoak edo are luxuzkoak; kasu horietan ibilbide luzeko merkataritzara jo beharko zuten. Basagainen aurkitutako beirazko ale batzuek, besteak beste, eskumuturreko-zati batek, eta fibula-mota batzuek azken merkataritza-harreman horretara hurbiltzen gaituzte.

Herrixka okupatua egon zeneko une batzuetan dirua erabiltzen zuten, nahiz eta seguru asko noizean behin izan, ordainketa-mota oso zehatz batzuk egiteko, beharbada.




Basagainen aurkitutako Baskunez txanpon-etxeko zilarrezko denarioaren aurkia eta ifrentzua. Gordailua/G. Studer. 2020.

Herrixka existitu zen bitartean eguneroako lanetan erabilitako **materialek**, aztarnategian bertan aurkitutakoak, baieztatzen digute ia hiru hektareako espazio honetan, hainbat artisauak tresnak egiten zituztela, bertako biztanleek bizimodua gauzatzeko eta garatzeko beharrezko zitzuztenak. Tresnak egiteko **harria** erabiltzeak, oso ohikoa Historiaurre osoan zehar, azken une hauetan balio oso garrantzitsua zuen, nahiz eta oso gauza zehatzetarako izan. Jadanik ez dira beharrezko tresna guztiak lehengai horrekin egingo, orain arte egiten zen moduan. Dena den, garai hartan askotan erabiltzen zituzten, batez ere errekarriak, errrotak, leuntzaileak eta eraunkailuak egiteko, baita Basagainen bertan ere. Bestalde, harria oinarritzko materiala zen harresiak egiteko, eta batzuetan, baita era askotako eraikinak, nagusiki etxebizitzak, egiteko ere.

58

Basagaingo herrixkan aurkitutako hainbat erabileratako errekarriak.
Gordailua/G. Studer;
J. Alonso. 2020.



Hala ere, Basagaingo herrixkako ekialdeko terrazaren barruan induskatutako bi guneetan, suharrizko ale gutxi berreskuratu dira orain arte, antzinagoko okupazioetan gertatzen ez zen bezala. 70 dira guztira; gehienak printzak, eta gutxiago, tipologikoki marrusken eta horzdunen antzekoak diren aleak. Hala ere, sail honetan harrigarria da ijeki edo ijekitxoen aztarna-kopuru proporcionalki handia, haietako batzuk bizkardunak (*tranchet* bat ere bai), multzo honek berreskuratutako suharri guztien herena osatzen baitu. Elementu horiek herrixka eraiki aurreko garai batekoak izan daitezke, hau da, gure Aroaren aurreko azken mendeetan izandako jarduerak suntsitutako aurreko kokagune batenak. Era berean, herrixkan aurkitutako zenbait kuartzo-kristal, kutun moduan erabili zen, beharbada, okupazio jarraituen uneren batean. Harrizko elementu horien guztien banaketa nahiko erregularra da eta induskatutako ia lauki guztietan agertzen dira, bizileku-egiturak aurkitu ziren guneetan nahiz erorketak zeudenetan.

Suharrien urritasun horren aldean, azpimarratu dugunez, errekarrien presentzia oso handia da, erabilera askotarako lanabes ugari egin zituztelarik haienkin; besteak beste, errrotak, eraunkailuak, leuntzaileak, likidoak berotzeko uharriak eta beste mota asko aurkitu dira Basagainen induskatutako espazio gehienetan.



Basagaingo barku-formako errota.
Gordailua/G. Studer. 2020.

59

Historiaurrearen amaierako fase honetan garrantzi handia dute **metalurgiarekin** erlazionatutako lanek. Gure Aroaren aurreko azken mendeetan, brontzearen ekoizpena bigarren maila batean geratu zen eta burdinak ordezkatu zuen ia erabat. Hala ere, objektu txikiak egiten jarraituko dute metal horrekin, batik bat apaindura pertsonalekoak eta osagarri batzuk. Basagainen, apaintetarekin erlazionatutako kobrezko eta brontzezko elementu batzuk aurkitu dira, eta horien artean nabamentzekoak dira fibulak —Iturissa motakoak, dorretxodunak eta oin alderantzikatua dutenak (azken hori kobrea eta burdina nahasiz egina)—, ilgora formako belarritako bat, ustezko torke edo eskumuturreko bat, orratz bat eta kono-formako aplike batzuk.



Basagaingo
brontzezko belarritakoa.
Gordailua/G. Studer. 2020.



Basagaingo brontzezko
aplikeak eta orratza.
Gordailua/G. Studer. 2020.

Burdinaren metallurgia agertzearekin aurreko ohituretako asko aldatu egin ziren, batez ere, beren jarduera gehienak egiteko erabiliko dituzten erreminten tipologiari dagokionez; bestek beste, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekonomiarekin erlazionatutako oinarrizkoak (golde-nabarrak, igitaiak...), eraikuntzakoak (iltzeak, grapak...), defentsiboak (armak) eta janzkera pertsonalekin erlazionatutakoak (fibulak, aplikeak, sandalien tatxetak...). Haietako batzuk okupazioaren unerik berantiarrenetakoak.

BASAGAIN

Bertako herrixka baten bizimodua eta berrikuntzen iritsiera



Herrixkan aurkitutako
burdinazko aleak.
Gordailua/G. Studer. 2020.



Basagaingo
clavi caligaeak.
Gordailua/
G. Studer. 2020.



Herrixka dagoen Basagain mendian kokaleku egonkor bat ezartzeko arrazoi nagusietako bat, beharbada, bertan burdin mea ugari egotea izan zitekeen. Ustiaketa horiek ezagutzen dira, duela gutxi arte erabili baitira, eta aztertzen ari dira, azaleratze mineral horiek herrixkako zenbait gunetan aurkitutako zepa-hondakinen eta burdinazko materialen kopuru handiarekin zer lotura duten jakiteko asmoz. Aurkitutako zepak burdinaren forjaketakoak dira, hau da, ingudean landua izateko metala berotzeko lanetan sutegi barruan sortzen diren materialak dira (San Jose, 2006).



Herrixkan jarduera
metalurgikoa izan
zela dokumentatzen
duen burdinazko
zepa-hondakinako bat.
Gordailua/G. Studer. 2020.

Garai haietako oinarrizko beste zeregin bat **zeramikaren** ekoizpena zen. Artisau espezializatuen lana zen hori, eta ontziak egin eta labeetan egosi ondoren, hainbat behar asetzeko balioko zuten: bestek beste, biltegiratzeko ontziak, sukalderako ontziak eta mahaiko baxerak. Haietako gehienak eskuz egin ziren eta gutxi batzuk tornua erabili- ta; azken horiek kolore gorri zta izaten dute, eta zeltiberiar motakotzat ezagutzen dira. Mota horietakoak guztietakoak agertu dira Basagaingo herrixkan, hainbat tipologia- tako milaka zati berreskuratu direlarik.



64

1



2




3



4

Zeramika egiteko
prozesua Kamerunen.
X. Peñalver. 2010.

Basagaingo herrixkan
eskuz egindako
zeramika-formak.
J. Alonso.



65



Basagainen eskuz
eta tornuz egindako
ontzien zatiak.
Gordailua/G. Studer. 2020.
Lamia. 2003.

66



Eskuz landutakoenean artean, S profil leuna duten formak aurkitu dira orokorrean; aho irekietan amaitzen dira, batzuetan ertz lauak dituzte, eta hondo guztiak lauak dira. Tornuz egindakoenean daude horma oso fineko ontzi txikiak, ia guztiak unbilikatuak, eta neurri handiko beste ontzi batzuk, haietako batzuk ertzetan moldurak dituztenak. Eskuz egindako zерamika batzuek apaindurak dituzte, besteak beste, soka-formakoak, hatz- edo azazkal-formakoak eta orrazi-formakoak.

Egur-lanak, herrixkako egitura gehienak eraikitze-ko ezinbestekoak, oso gutxi agertzen dira aztarnategian, material hori kontserbatzea oso zaila baita. Horrez gain, tresna asko zurarekin egingo ziren; besteak beste, lanabesen kirtenak, edalontziak eta ontzi mota asko eta apalak; etxebizitzak gelatan banatzeko ere balioko zuen.


